



*[Elkarbizitza Plana eta Hezkidetza ikastetxean elkarbizitza positiboa sustatzera bideraturiko esku-hartzeen plangintza zein haren jarraipena eta ebaluazioa egiteko aurreikusitako jarduerak jasotzen dituen dokumentua da]*



## **BIZIKIDETZA ETA HEZKIDETZA PLANA ( B.H.P.)**

**[ OOGnak 2018 ekainaren 27an onartua ]**

**IES ELORRIO BHI ( ELORRIO INSTITUTUA)**



## AURKIBIDEA

<b>1. Sarrera:</b> .....	3-8. orri.
1.1. Ikastetxearen ezaugarriak Testuingurua	
1.2. Bizikidetza-Hezkidetza Plana prestatzeko jarraitutako prozesuaren deskribapena.	
1.3. Ikastetxeko bestelako dokumentuekiko lotura	
<b>2. Bizikidetzaren definizioa gure ikastetxean</b> .....	9.orri.
<b>3. Gure ikastetxeko bizikidetzaren diagnostikoa</b> .....	10 -11 orri.
<b>4. Helburu orokorrak</b> .....	12-13 orri.
<b>5. Bizikidetza-helburuen lorpena sustatzeko egiturak</b> .....	14-18 orri.
5.1. Bizikidetza- Hezkidetza Behatokia	
5.2. Hezkidetza ordezkariak	
5.3. Bizikidetza-Hezkidetza talde eragilea	
5.4. Egitura desberdinen arteko harremana	
<b>6. Jarduteko irizpide eta ildo orokorrak</b> .....	17-20 orri.
6.1. Jarduteko irizpide orokorrak	
6.2. Jarduteko ildo orokorrak	
<b>7. Ikasleen arteko jazarpenaren aurrean esku-hartze mailak:</b> .....	21-27 orri.
7.1. Lehen esku-hartze maila	
7.2. Bigarren esku-hartze maila	
7.3. Hirugarren esku-hartze maila	
<b>8. Bizikidetza - Hezkidetza Planaren urteko zehaztapena</b> .....	28 orri
<b>9. Zabalkundea</b> .....	29-30 orri
9.1. Bizikidetza-Hezkidetza Planaren zabalkundea	
9.2. Urteko helburu eta jardueren zabalkundea	
9.3. Eskola jazarpenaren protokoloaren zabalkundea	
<b>10. Bizikidetza –Hezkidetza Planaren jarraipena eta ebaluazioa</b> .....	30-32 orri.
10.1. Bizikidetza-Hezkidetza Planaren ebaluazioa	
10.2. Bizikidetza-Hezkidetza Planaren urteko helburuen ebaluazioa	



## 1. SARRERA

*"Lankidetzaz ez du esan nahi konfliktoa ez dagoenik, konfliktoa ebazteko bidea dela baizik "*

**Deborah Tannen**

Bizikidetzarako hezkuntza, honek garrantzia handia baitu hezkuntza –komunitate kide guztien ongizatean, baita ikasleen garapen pertsonal zein sozialean eta haien errendimendu akademikoan ere, helburu bihurtu da

Ekintzetan partaide garenean, topaketak eta baterakidetasunak, ezberdintasunak eta gatazkak gure eguneroko harremanetan txertaturik daude. Gatazka gabeko gizarte bat pentsaezina litzateke. Eskola erakundea gizarte-esparru zabalean murgilduta dago. Inguru honetan gizarteak eskolari egin behar sozializatzaile bat ezartzen dio, hezkuntza edozeinen betebeharrak eta eskubide legez harturik; eskolak edonoren garapen pertsonal, moral eta intelektuala bideratu behar du. Hau dela eta, aspektu hau ezin du alde batera utzi eta ikasle guztiei erantzuna eman behar die.

Hezkuntza prozesuan eta giza harremanen barne, gatazkak eta pertsonen arteko diferentziak ematen dira. Horregatik, onartzen dugu sozializazio prozesu horretan bizikidetzan ematen diren gatazkak kudeatu egin behar ditugula, gure institutuko bizikidetzako giro baketsua eratzen joateko eta ikasleen garapen morala bultzatzen joateko printzipio demokratikoen barruan, beti ere tolerantzia eta askatasunean; eta giza eskubideei begirunea adieraziz, elkartasuna, lankidetzaz eta begirunea balioetan oinarrituz .

Bizikidetzak, beste alde batetik, eskola-esparruko partaide guztiok hala behartzen gaitu eta garapen sozio-pertsonalaren curriculumean helburutzat hartu dugu. Komunitate eskolarraren ondo egitearen gainera gatazkak sortu egiten dira eta hauek har genitzake jarritako ordenaren apurketa edo hezkuntza prozesuak gainditu ditzakeen egoera bezala. Honegatik ikastetxeak arreta bereziz zaindu behar du harreman giroa, hezkuntzaren kalitatearentzat gai honek duen garrantziarengatik.

Hartu nahi dugun ikuspegia gatazkak aldatzea izateko bide izan daitezela da, honekin zentroko bizikidetzaz hobetzeko bakezko eta bidezko irtenbidearen aukera bat sortuz. Beraz, alde batetik, esku-sartzea bide-kliniko edo zigortzaileetatik urrundu beharra dago eta bestetik, eginkizun hezitzailean oinarritu behar da. Azken finean bake harreman esparru bat sortarazteak, hauek gure neska-mutilak dabilzan bizitzako ingurura eramateko bidea zabalduko dute. Gainera gero euren bizitza profesionalean, familiarterakoan,...isla izango duten harreman mota batzuk oinarritzeko balio dute.

Egia esanda bizikidetzaz denon helburua izateko denon partaidetzaz eskatzen du. Denok sentitu behar dugu ikastetxea gurea dela eta bertan gertatzen dena inportatzen zaigula. Horretarako eragile guztiek dute zer esan eta zer egin: Bai irakasleak, ikasleak, familiak, langileak,...



Ildo honi jarraituz, gure ikastetxean Bizikidetzarako planteatzen ditugun helburuak hauek dira:

- Ikastetxeko bizikidetzako klima hobetu.
- Tolerantziarako hezkuntza bultzatu.
- Gatazken kudeaketa baikorra edo/eta prebentzioa lortu.

Orokortasunean, mantendu egiten dira, baina gaia sakontasunez eta barrutik aztertzerakoan azpi helburuak planteatu dira, epe laburrean helburu nagusi horiek lortzen lagunduko dutenak. Besteak beste:

- Ikastetxeko Hezkuntza Proiektuan adostutako filosofia txertatu.
- Programazioetan konkretatu diagnostikotik atera diren ondorezak.
- Gatazkak kudeatzeko espazioa sortu.
- Gatazkak ebaste protokoloa esplizitatu, estamentu guztien artean adostu eta ezagutzera eman.
- Ikasturte hasieran taldez talde bi edo hiru saiotan gela bakoitza kudeatzeko araudia sortu, inplikaturako guztien arteko adostasunaz.
- Bermatu programazioetan sartuz gutxienez arlo bakoitzean lan kooperatiboa erabiliz estrategia moduan lan bat egingo dela ikasturtean zehar.
- Ikasleen partaidetza eta korresponsabilitatea bultzatzeko prozedura kooperatiboa erabili ikasleen ordezkariak aukeratzeko momentuan.
- Familien partaidetza hobetzeko ekintzak antolatu

Bizikidetzaren Hezkidetzaren proiektu hau aipatzen ditugun hurrengo lege, agindu, dekretu, ... eta abarretan oinarrituta dago:

- Bizikidetzaren Hezkidetzaren plan honen marko legala LOEko 2/2006, maiatzaren 3ko legetik dator. 19/2007ko urtarrilaren 23an argitaratutako dekretuak esaten du bake kultura sustatzeko eta diru publikoarekin mantendutako ikastetxeen (unibertsitateak izan ezik) elkarbizitza hobetzeko, neurriak hartuko dituela eta martxan jarriko ditu hainbat ekintza helburu hau lortzeko, besteak beste elkarbizitza plana.

Erkidegoan honako legeak ere ditugu:

- Euskal Eskola Publikoari buruzko Legearen helburuen artean hauxe ageri da: “Elkarbizitza demokratikoa ahalbideratzen duten baloreetan oinarriturik ikasleen normaltasuna askatasunean garatzea eta heziketa osatua bultzatzea, besteak beste, gaitasun eta joera kritikoa, berdintasuna, zuzentasuna, partaidetza, aniztasunarekiko begirunea, elkartasuna, gizartearekiko kezka, elkar eramankortasuna eta elkarrenganako begirunea, bai eta giza eskubideen aldeko jarrera ere, sustatuko dituela”.
- EAEko derrigorrezko hezkuntzaren curriculum berriak bere izaera konpetentziala azpimarratzen du eta “Hezkuntzaren lau oinarri nagusiak” bildu, hauetariko bi “Elkarrekin bizitzen ikastea” eta “Pertsona gisa garatzen ikastea” direlarik.



Horrela, bere XEDAPEN OROKORRETAN (1. kap, 3. art, 6) definitzen du: “Ikastetxeetako elkarbizitza egokia izan dadin, bake positiborako, giza eskubideetarako, justiziarako, elkartasunerako eta inklusiborako heziketa eman behar dute ikastetxeek. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak sustatu egingo du ikastetxeko proiektu osoak egin daitezzen, horien xedea bada bake-kultura bat sortzea eta oinarritzat hartzen badituzte errespetuan, elkarriketan eta emozioen erregulazioan eta kontrolean ardaztutako jardunbideak. Proiektu horiek, halaber, oinarri izan behar dute gatazken trataera etikoa eta hezkuntza-komunitateko pertsona guztien eskubideak eta betebeharrak”.

- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2005eko otsailaren 18ko Legean hauxe ezarri da: “Hezkuntza Administrazioak oinarritzko printzipiotzat ezarriko du hezkuntza-maila guztietan indarkeriazko jokaerak prebenitzea, eta eguneroko bizitzari buruzko eduki eta aldi zehatzak ezarriko ditu hezkuntza-maila guztietan. Eduki eta aldiotan, honakoekin zerikusia duten alderdi eta edukiak integratuko dira: etxearekin, pertsonen zainketarekin, harreman pertsonalen funtzionamendua ezagutzearekin, eta gatazkek konpontzeko indarkeriarik gabeko metodoak eta sexuen berdintasunaren eta aniztasunaren errespetuan oinarritzen diren bizikidetzak-ereduak ikastearekin”.
- ARARTEKOAK 2006ko “Elkarbizitza eta gatazkek bigarren hezkuntzako ikastetxeetan” informean eginiko GOMENDIOAK aipatuko ditugu: “Ikastetxeen parte-hartzea bultzatzea, elkarbizitzaren hobekuntzarako programa eta planetan. Praktika onak hedatzea eta esku-hartze programak barreiatzea, ebaluatu, eta eraginkorrak direla baieztatu ondoren.”
- Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko ikastetxeetako ikasleen eskubideei eta betebeharrari buruzko Dekretua 201/2008 atera zuten 2008ko abenduaren 2an “.....Azalpenean agertzen dira lortu nahi diren xede nagusiak: ikasleek beren eskubideak baliatzen eta beren betebeharrak betetzen ikasi behar duten bizikidetzak-esparrua arautzea, gizartean eskubide osoko herritar gisa integra daitezzen. ... bizikidetzak positiboki bultzatzean datza..... faltak zuzentzeko prozesuan “gizarte- eta hiritar-gaitasuna” eskuratzeko funtsezko tresna curriculumek dakarten oinarritzko gaitasunetako bat da...”
- EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO HEZKUNTZAKO IKUSKARITZAK 2015 eko azaroaren 15ean “Ikastetxeetan eskola jazarpena kasuetan jarduteko gida” berritzi du . Aurretik 2004-2005 ikasturtean argitaratu zuen eta 2007ko maiatzean aldatu zen lehenengo aldiz.

201/2008 Dekretuak aipatutako ildo beretik, azken urteotan, azterketa eta ikerketa askok nabarmendu dute alderdi positiboetan oinarritutako ikuspegi batetik landu behar dela bizikidetzak. Jarrera hori hartuz gero, bizikidetzak positiboak sustatzen duten estrategietan jarri ahal izango dugu arreta, bizikidetzak puskatzen deneko egoera larriek eskatzen duten erantzun zehatzetan –eta beharrezkoan, beste alde batetik– jarri beharrean.

..... adierazpenek eta jokabideek bizikidetzak hondatzen dutenetan ere, irakasleek eta gainerako hezkuntza-komunitateak erantzun hezigarri bat eman behar diete egoera horrekin zerikusia dutenei. Ikuspegi hezigarri hori, prebentzioarekin batera, funtsezkoa izango da ikastetxeetatik bizikidetzak hondatzen dut en jokaerak desagerrarazteko, eta, bereziki, berdinen arteko jazarpena. “





## 1.1. IKASTETXEAREN EZAUGARRIAK. TESTUINGURUA.

Ikastetxe honek hamar urte baino gehiago daramatza bizikidetzarekin loturiko gaiak lantzen, eta DBH abiarazi zenetik lehentasunezko lan-ildo bihurtu da; hezkuntza komunitateak beharrezkotzat jotzen baitzuen alderdi horri lehenbailehen heltzea.

Hauek dira orain arte landutako zenbait gai: ardura eta begirunezko harreman positiboak, Ikastetxeko ikasgeletako araudiak, irakasle, ikasle eta familien partaidetza eta inplikazio elkarbizitza positiboa kudeatzeko trebetasun pertsonalak eta sozialak, eskolako jazarpena eragotziko duen kultura baten sorrera, etab.

Gaur egun, ikasleek ikastetxeko bizimoduan modu aktiboan parte hartzen dute, ordezkari, lantalde, batzorde eta abarren bidez:: gelako ordezkarien hautaketan egiten da ikasturte hasieran eta behar denean gelako ordezkarien bilerak egiten ditugu; Hauzpoako laguntza ematen ari dira LHko ikasleei 3. DBHko ikasle boluntarioak eta 1DBH, , ikasleekin tutore lanak eginez 4. DBHko ikasle boluntarioak; Agenda 21 eko taldean. OOGnean, Elkarbizitza hezkidetzaren behatokia, eskolako jaialdia antolatzen eta parte hartzen, ....

Ikasleen, irakasleen eta familien partaidetza Ordezkaritza Organo Gorenean: positiboa eta aktiboa da. Ikastetxeko ikasleen absentismo-indizea: txikia da. Ikasturtea errepikatu behar duten ikastetxeko ikasleen batezbestekoa %4,5 ingurukoa da. Laguntza-premia bereziak dituzten ikasleen batezbestekoa %4,6 da.

Familia gehienekin harremana honelako da: ona eta estua da.

Irakasleak ez diren langileak aktiboki parte hartzen ikastetxearen kudeaketan. Ikasturtean zehar hainbat koordinazio-bilera egiten dira, honako gai hauek eztabaidatzeko: sarrera-irteera korridore eta abarretan arauak betetzen ote diren ikusteko jarraipenak egin.

Ikastetxeko guneak nahikoak dira ikastetxean bizikidetzaren positiboa garatzeko, jolasgaraietan jolastokia zaintzen duenarentzat gune kontrolaezinak daudelako / ez dagoelako gune kontrolaezinek, etab. Oro har ikastetxeko elkarbizitza-giroa honela sailka dezakegu: oso ona edo ona

Bizikidetzaren -gaietan ikastetxeak eskarmentu luzea du: Bizikidetzaren Behatokia sortu zuen, landua du harrera-plan bat (irakasle / ikasle / familia / langile)

- Familiek, orokorrean, garrantzia ematen diete ikasketei.
- Ikasgelako bileretara eta tutoreekin dituzten elkarriketetara joaten dira, eta gehienak Guraso Elkartean daude.
- Irakasleen esku-hartzea eskatzen duten portaerak, nagusiki, hauek dira:
  - Distrazioak, ikaskideekin hitz egitea, eskola-orduetan irakasleak agintzen dituen zereginak egin beharrean bestelakoak egitea. Eskola etetea.
  - Etxerako lanak egin gabe etortzea edo beharrezko tresneria ahaztea.
  - Hiztegi zikina, behar ez bezalakoak, berdinaren arteko harremanetarako desagokia, isekak.
  - Neurri txikiagoan, irainak, zantzu sexista edo arrazista duten isekak etab.



- Borroka gutxi izaten dira. Urtero, batez beste, ustezko sei jazarpen-kasu salatzen dira, baina soilik kasu batek edo bik betetzen dituzte jazarpentzat hartzeko beharrezko ezaugarriak.

Azken batean, gure ikastetxean elkarbizitza lehentasunezko gaia da, baina joerak antzematen ditugu; asko eta asko bizitzen ari garen gizartearen isla dira, kezkatzen gaituztenak eta modu sistematiko eta eraginkorragoan aztertu nahi ditugunak Bizikidetza-Hezkietza Plan honen alorrean.

## **1.2. BIZIKIDETZA-HEZKIDETZA PLANA EGITEAN JARRAITUTAKO PROZESUAREN DESKRIBAPENA**

Ikastetxean onartuta zegoen Elkarbizitza Plana(2010ean) eta garai horretarako sensibilizazioa, diagnostia eta Plana zegoen. Beste alde batetik Hezkidetza Plana eta baita AIA idatzita eta onartuta genuen.

Bizikidetza Plana berrikustea premiazkoa zela baloratu genuen eta baita Hezkidetza Plana Bizikidetza planarekin batera joan behar zela erabaki genuen.

Elkarbizitza-Hezkidetza plana berrizteko ekimena zuzendaritza taldean sortu zen 2015-2016 ikasturtean.. Zuzendariak batzorde bat izendatu zuen prozesuaren plangintza egin eta dinamizatzeko.

Plana berikusten eta berridazteko dokumentu berria burutzen Bizikidetza Hezkidetza taldeko bi partaide aritu dira:

- 2015-2016 hasi zen aurreko planak kontuan izanda eta “Ikastetxearen elkarbizitza plana egiteko gida 2016” ko eskemari jarraituz. Minteigetara zati batzuk pasatu ziren eta onartuta geratu ziren dokumentu honetako lehen bost puntuak.
- 2016-2017 ikasturtean ikasleen arteko jazarpenaren inguruko formazioa jaso genuen B09 aholkulariaren eskutik. Honen ondorioz hasierako eskemari aldaketa bat egin genion aipatutako gai horren inguruan ikuspuntu berria txertatzeko. Ikasturte berean ekainerako Bizikidetza Hezkidetza Planaren dokumentuaren zirriborroa bukatu zen.
- 2017-2018 zirriborroa OOGneko kideei, irakasleei eta Bizikidetza-Hezkidetza Behatokiko kideei pasatu zaie azken orduko iradokizunak eta ekarpenak egiteko. Planaren aurkezpena eta onespena OOGak izan duen bileran egin da(2018/06 /28 ).



### 1.3. IKASTETXEKO BESTELAKO DOKUMENTUEKIKO LOTURA

Elorri DBH institutuan bizikidetarako hezkuntzak garrantzi handia izan du eta horrela xede garrantzitsua dela adierazten da institutuak duen **Hezkuntza Proiektuan** modu honetan:

*“Elorriko Institutuaren ZEREGINA, gure ikasleei, elkartasunean, berdintasunean, errespetuan, tolerantzian, arduran, autonomian, zentzu kritikoan eta partaidetzan oinarrituta heldutasuna lortzen laguntzea da. Ikasleak euren prestakuntzan eta eguneroko funtzionamenduan dituzten betebeharrak eta eskubideetan inplikaturiko ditugu, ikasteko duten motibazioa landuz. Arreta bakoitzari bere beharrezko arabera emango diogu balore inklusiboak garatuz, euren gaitasunen lanketan oinarrituz akademikorik onena lortzeko eta etorkizunean ahalbideak bermatzeko. Honetarako gure giza baliabide eta bitarteko materialak erabiliko ditugu.”*

**AIA/ROF** dokumentuko sarreran 2. puntuan dokumentu honen minimo bat moduan zera esaten da *“Zenbait arau, hezkuntza-komunitateko kide guztien arteko begirunea eta bizikidetza bermatzeko, eta aretoak nahiz instalazioak egoki erabiliko direla ziurtatzeko. Arau horiek demokratikoak izan behar dute; hau da, eskola-komunitateko kide guztiek hartu behar dute eskubideak errespetatzeko eta betebeharrak betetzeko konpromisoa.”*

#### • **TUTORETZA PLANEKO dokumentuan aipamen hauek egiten dira:**

##### • **“Helburu orokorretan :**

- 3. Helburuan Ikaskideen arteko errespetua bultzatu, pertsonen desberdintasunak ezagutu eta baloratu
- 4. Helburuan. Taldean eta ikastetxean ikasleen partaidetza eta integrazioa erraztu ikasleen sozializazio-prozesua hobetuz, institutuko partaide direla konturatu daitezten.
- 7. helburuna Talde barruko harremanetan jarrera eta portaera egokiak adierazi, hezkuntza taldearen indarrak bateratuz eta institutuko arauak ezagutu, elkarbizitzaren alde egiteko.
- 8. helburuan. Gatazkak eraldatzen lagundu, berdinen arteko tartekaritza erabiliz.
- 10. helburu ikasleek jasangarritasunaren inguruan hezi errespetua bultzatu, institutuko instalakuntzetatik abiatuz ( materiala errespetatu, zaindu, birziklatu, ... )”

##### • **“Gaitasunetan. Gizarte eta hiritar-gaitasunean zera aipatzen da:.**

- Gizarte-bizitzan eta bizitza profesionalean eraginkortasunez parte hartzeko prestatzen du gaitasun honek.
- Gatazkak gainditzeko eta/edo arazo egoerei aurre egiteko ere balio du.
- Jasangarritasunean hezi eta honen inguruan errespetua bultzatuz hiritar-gaitasuna osatuko dugu.
- Gelako kide guztiak aktiboki integratzea, eskolan dauden desberdintasunak onartzea eta taldean ikasle berriak sartzea gaitasuna hori garatzen lagunduko duten gertaerak dira.
- Gaitasun honi lotuta ditugu ere, alde batetik gizarte trebetasunak ikasleen arteko harremanak aberatsagoak eta baikorrak izan daitezten; eta bestetik, integrazioa errazten duten taldeko dinamikak garrantzia hartzen dute ikasleek komunikazio gaitasunak eta errespetuzko jarrerak garatu ditzaten.”

##### • **“Ikasleekin landu behar dena**

3. Besteekiko harremanak (komunikazioa, talde lana eta gatazken konponketa)
4. Elkarbizitzaren inguruan eta institutuko funtzionamenduan parte hartu : eskubideak eta betebeharrak.
5. Talde barruko harremanen hausnarketa eta eztabaida bultzatu.”





## 2. BIZIKIDETZAREN DEFINIZIOA GURE IKASTETXEAN

Bizikidetza positiboz ulertzen dugu berdintasunez tratatzea, denok onartuak izatea, giro eta harreman egokietan, lankidetzan, partaidetzan eta errespetuan oinarrituta, bortizkeriarik gabe, elkarrizketa bidez, bakoitza bere lekuan gustura eta eroso egoteko aukera emanez.

Bizikidetza arauak aukera eta tratu berdintasuna, arrisku tokiak eta momentuak, konponbideak aurkitzeko irizpideak, kide bakoitzaren ardurak,..., argi agertuko dituzte, gatazka egoerak ekiditeko eta konponbide hezitzaileak aurkitzeko. Estamentu bakoitzeko ordezkariak adostuko dituzte, kide guztiei ezagutzera eman eta Bizikidetza-Hezkidetza Behatokiak funtzionamendu egokia zaindu .

Ikastetxe honetan gatazkek hausnarketa egiteko aukera bat kontsideratuko dira, kontzientzia hartzeko eta aldaketak kudeatzeko.

Esku hartze hezitzaile baten bidez egingo da gatazken eraldaketa eta ebazpena: konponketa bilatu, UEP-ean araututako neurri zuzentzailea ezarri eta errespetuan oinarritutako harremanak berreskuratu. Eta besteak beste, ondokoak hartuko ditugu kontuan: gatazka aztertu, partaideak identifikatu, tokiak, emozioak, aurrekariak aztertu, irtenbide posibleak planteatu, irtenbide bat adostu eta konpromisoa hartu.



### 3. GURE IKASTETXEKO BIZIKIDETZAREN DIAGNOSTIKOA

Familiak, ikasleak, irakasleak eta AZPk egindako diagnostiko fasea oinarritzat hartuta, esan dezakegu ikastetxearen bizikidetzaren giroa ona dela.

Hainbat eremu landu dira ondorio honetara heltzeko: Hezkuntza-politika, bizikidetzaren antolakuntza eta kudeaketa, gatazken eraldaketa eta etika, partaidetza, emozioak eta sentimenduak, irakatsi eta ikasteko prozesua eta irakaslan-estiloa. Denetan orokorrean, estamentu guztien perzepzioa ona da. Aipatu behar da, hala ere, aspektu batzuk oso indartsu baloratu izan ditugula eta horrela lantzen jarraitu beharko ditugu eta beste batzuk, ordea, ahulagoak agertu dira, beraz, gehiago landu, sakondu edo zuzendu beharrekoak.

#### 3.1. ALDE INDARTSUAK.

- **Bizikidetzaren antolakuntza eta kudeaketa**
  - Harremanak eskubide eta betebeharretan oinarritzen dira.
  - Batzutan gatazken aurrean jokaera prebentiboa.
  - Ikastetxean ahalegina handia egiten da ahalik eta gatazka gutxien izan daitezen, eta gertatzen direnean era baketsuan eta elkarrizketa erabiliz konpontzen saiatzen da .
  - Bitartekaritza eta kideen arteko laguntza erabiltzen da.
  - Ikastetxean AJA idatziz jasota dago
  - Akatsetatik ikasten dugu.
  - Lan giro ona dugu.
- **Irakatsi eta Ikaste prozesuan**
  - Iturri desberdinak erabiltzen dira lan egiteko.
  - Itxaropenak altuak mantentzen dira.
- **Gatazken kudeaketan**
  - Taldearen zein pertsonaren garapenerako gatazka elementu baliagarritzat hartzen da.
- **Partaidetza eta komunikazioan**
  - Ikastetxea kudeatzeko organoetan estamentu guztiek parte hartzen dute.
  - Batzuentzat komunikazioa erraza, hurbila eta eraginkorra da.
  - Estamentu guztien arteko harremana errespetuzkoa da
  - Komunikazio bideak ezagutzen dira.
  - Harrera jarduerak jasota daude
- **Antolakuntzan:**
  - Zuzendaritza taldeak berrikuntza prozesuak bideratzen ditu



### 3.2. LANDU BEHARREKO ALDERDIAK.

- **Bizikidetzaren antolakuntza eta kudeaketa**
  - Harremanak indartu behar dira talde kohesioa lortuz.
  - Delegatuen figura indartu
- **Irakatsi eta Ikaste prozesuan**
  - Motibazioa landu.
  - Lan kooperatiboa bultzatu.
- **Gatazken kudeaketan**
  - Gatazka guneak ekidin
- **Partaidetza eta komunikazioan**
  - Elkarbizitzaz informazio gehiago ikasleei eta familiei eman ikasturte hasieran.
  - Familiei komunikazioa hobetzen jarraitu.
  - Familien partaidetza bultzatzen jarraitu.

ONARTUUA 18-22



## 4. HELBURU OROKORRAK

Bzikidetza– Hezkidetza Plan honetan, ikastetxeko bizikidetza-giroarekin loturiko IHPko helburuak jasotzen dira eta gure ikasleek beren garapen pertsonal eta sozialean lortzea nahi dugun balioak.

Ondoko helburuak markatzen dira:

1. Ikastetxe bat izatea non tolerantzia, errespetua, elkartasuna eta lankidetza balio partekatuak izango diren eta ekintza jakin batzuetan islatuko diren. Elkarrekin bizitzen ikasteko kultura lantzen jarraituko dugu, adierazkortasunean (begirunea, afektoa, amabilitatea), enpatian eta aurreiritziak saihesten. Arrazakeria, diskriminazioa, bazterketa gainditzea, azaltzen direneko egoerak desitxuratuz, eztabaida bultzatuz, enpatia eta pertsona guztien eskubideen aitorpena sustatuz.
2. Inolako ekintza diskriminatzailearik gertatzen ez den hezkidetza-ikastetxea izango da. Ikastetxearen identitatea ezaugarri moduan zera izango du: Sexuen arteko errespetua eta sexua bizitzeko moduekin begirunea.
3. Ikastetxean, denon artean eta arlo guztietan giro eta harreman positiboak sustatu, elkarri lagunduz, lankidetzarako eta elkartasunerako egoerak sortuz. Beren mugak onartuko dituzten eta beren gatazkak eta frustrazioak kudeatzeko gai izango diren pertsonak prestatuz.
4. Ikastetxean bizikidetzaren inguruan eratuta dagoen talde eragileari duen garrantzia eman.
5. Ikasgelako eta ikastetxeko bizikidetzaren kudeaketan ikasleen inplikazioa sakontzea. Arlo horretan esku-hartzeak sistematizatzea:
  - a. Ikastetxeko bizikidetza-arauak denon artean eta adostasunez lantzea eta, behar denean, berrikustea.
  - b. Delegatuaren papera indartu: betebeharez jabetu, irizpideak eman, tutelatu, korresponsabilitatea landu,...
  - c. Ikasleekin korresponsabilitatea landu behar duenari babesa, segurtasuna, konfidantza emanaz gatazkak bideratzeko.
6. Gatazken tratamendu egokia eta haiek modu baketsuan konpontzen ikasteko estrategiak prestatu eta abiarazi. Arazoak prebenitzea eta gatazka guneak aurretiaz kontrolatu (atsedenaldiak, pasabideak, aldagelak, ...).
7. Eskola-komunitate eta kanpo-eragile batzuen partaidetza, lankidetza sendotu, konfiantzazko eta errespetuzko giroan. Pertsona guztiak aintzat hartuak, entzunak eta erabakiak hartzean partaide izan daitezen nahi dugu.
8. Bizikidetza positiboarekin loturiko zenbait alderdiri buruzko eta hezkuntza-komunitateko estamentu guztiei zuzenduriko prestakuntza (kulturartekotasuna, aniztasun afektibo-



sexuala, heziketa emozionala, gatazken kudeaketa, portaeraren hobekuntza...) proposatu eta plangintza egitea, ikastetxeko bizikidetza positiboaren agente aktiboak izaten lagundiko dieten trebetasun eta baliabide komunak izan ditzaten.

9. Irakasle-taldearen harremanak hobetzea, partaidetza eta komunikazioko mekanismoak eta tresnak emanez, klaustrakideek areagotu dezaten ikastetxeko parte direlako sentimendua eta zeregin komunetan gehiago inplika daitezen.
10. Modu adostuan, jokabide desegokien aurkako irizpideak eta jarduteko jarraibideak lantzea, ikasleen eskubide eta betebeharreri buruzko 201/2008 Dekretuaren arabera.

ONARTUA 18-22





## 5. BIZIKIDETZA-HELBURUEN LORPENA SUSTATZEKO EGITURAK

### 5.1. BIZIKIDETZA- HEZKIDETZA BEHATOKIA

Ikastetxean, bizikidetza-hezkidetza kudeatzeko erreferentziako eta kontsulta organoa da.. Horretarako gutxienez urtean hiru aldiz bilduko da, ebaluazio bakoitzaren ostean.

Batzorde honetatik lan egingo da planteamendu zigortzailea gainditu eta, neurri prebentibo, aringarri eta zaharbertzaileen bidez, elkarbizitza positiboagoa lortzeko

Eskola-komunitatean harreman positiboak ezartzeko eta bizikidetza osasungarria eraikitzen arduratzen den egitura honek **Helburu** hauek jo mugan izango ditu:

- Errespetuan eta elkarrizketan oinarritutako bizikidetza sustatzea.
- Bizikidetza-hezkidetzari buruz ikuspegi globala izanik, prebentzio jarduerak eta hobekuntza neurriak proposatzea.
- Bizikidetza-Hezkidetzaren azterketa, balorazio eta jarraipeneko jarduerak garatzea..

**Partaideak.** Estamentu guztiak islatuta egon behar dira eta horrela antolatuko da. Talde honetan partaideen iraupena bi urterako izango da:

- Familietatik 2 ordeko
- Irakasleriaren aldetik: 2 ordeko
- Ikasleriaren aldetik: 2 ordeko
- Ez dozenteen aldetik: ordeko 1
- Zuzendaritzatik: 1
- Orientatzailea: 1
- OGG Hezkidetza arduraduna : 1

**Zereginak** hauek izango dira:

- Bizikidetza–hezkidetzarekin lotutako helburuak eta ekimenak Ikastetxeko proposatu Urteko Plana ean (IUP) txertatzeko eta gero jarraipena eta ebaluazioa egiteko urteko memorian jasoz.
- Estamentu guztien partaidetza bermatu eta bultzatu, batez ere ikasleena
- Harreman positiboak sustatzen dituen jarduerak proposatu: topaketak, jaialdiak gabonetan eta ikasturte bukaeran, 4. Mailako ikasleekin agurra egin, taldeei begiratutako egonaldiak, kanpaina desberdinak egin ( generoarekin zer ikusi duten data esanguratsuenak ospatu, agenda 21etik antolatzen direnak, ...)
- Elkar-zainketa kultura garatu. Besteei zaintzeak bientzat poztasuna eta aberastasuna dakartza . IK/KI metodologiak hori dakar eta familiiei horrela azaldu behar zaie.
- Ikastetxearen arauak aztertu, diagnostikatu eta hobetzeko neurriak martxan jarri.
- Eguneroko beharrak edo arrisku-faktoreak identifikatu , gatazkak kudeatu eta ekintza erangikorrek proposatu gatazkak eraldatzeko.



- Sistematikoki ikastetxeko bizikidetzaren inguruko datuak bildu eta aztertuko ditu Bizikidetzeta-Hezkidetzeta talde eragileak . Garrantzi handia hartzen du eskola jazarpeneko balizko gertaerak iigarri eta neurriak martxan jarri.
- Beste erakunde eta inguruko organizazioekin lankidetzeta sustatu: mankomunitatea osasunaren aurkako kontsumoen prebentzioan eta heziketa afektibo-sexuala , Udaleko Hezkidetzeta teknikariarekin hezkidetzeta mahaian eta hezkidetzeta lantzeko programa desberdinetan,...
- Prestakuntza arloko jarduerak proposatu.
- Bizikidetzeta-Hezkidetzeta plana lau urte ondoren berrikusi eta hobetzeko proposamenak egin.

## 5.2. HEZKIDETZA ORDEZKARIAK:

- **Organo Goreneko (OOG) edo Eskola-Kontseiluko (EK) ordezkaria.** Derrigorrezko figura da eta bere eginkizunak bete ditzake irakasle zein gurasoren batek.

Betebeharrak hauek dira:

- Berdintasun eta hezkuntza gaiei buruz indarrean dagoen arau-esparrua zein den jakitea, zabaltzea eta ikastetxeak bete dezan bultzatzea.
- IIHPn berdintasunari buruzko araudian xedatutako balioak eta helburuak jasotzen direla zaintzea.
- Ikastetxean onartzen diren aurrekontuak genero-ikuspegia kontuan hartuta egin daitezten eta baliabideak esleitzea eta bantzea genero berdintasuna kontuan izanda ere egin daitezten.
- Ikastetxeko antolamendu eta funtzionamendurako erregelamenduan genero ikuspegia sar dadin bultzatzea helburu hauekin:
  - Emakumeak eta gizonak orekaz ordezkaturata egotea ikastetxeko funtzionamendu-organoetan.
  - Espazio komunak hezkidetzan oinarrituta erabili eta tratatzea.
  - Ikasle guztiek ( neskak eta mutilak) jarduera guztietan parte har dezaten bultzatzea.
- Eskolaz kanpoko jarduerak eta ekintza osagarriak genero ikuspegia aintzat hartuta antola daitezten bultzatzea.
- Hezkuntza komunitatean formazioa eta sensibilizazio neurriak edo ekimenak sustatzea.
- Ikastetxean genero indarkerai( jazarpen sexista, sexu-jazarpean, etxeko tratu txarrak, sexu-erasoak,...) antzemateko eta aurre egiteko neurriak har daitezten bultzatzea.
- Ikastetxean berdintasunari buruzko diagnostia egiten edo errebisatzen laguntzea.
- Beste ikastetxe edo administrazio zerbitzuekin elkarlanean aritzea (udala, mankomunitatea, LHko ikastetxearekin, ....) genero indarkerian prebentzioa sustatzeko.
- Urteko planean ikastetxean berdintasunaren arloko jarduerak egin daitezela eta urteko memorian jasota egon daitezela.
- Hezkuntza komunitatean gizon-emakumeen berdintasuna sustatzen laguntzen duen beste edozein jarduera.



- **Bizikidetza-Hezkidetza batzordeko berdintasun-ordezkaria** . Derrigorrezko figura da eta irakasle batek beteko du.  
Betebeharrak hauek dira:
  - B09 Durangaldeko berritzegunean antolatzen den mintegira edo prestakuntza saioretan parte hartzea.
  - Bizikidetza-hezkidetza talde eragilearen koordinazioa eramatea.
  - Elorrio LHko ikastetxeko berdintasun ordezkariekin koodintzatzea
  - Elorrio Udaleko Berdintasun mahaian parte hartzea.
  - Bizikidetza -Hezkidetza urteko plana aurkeztea.

### 5.3. BIZIKIDETZA - HEZKIDETZA TALDE ERAGILEA.

Ikastetxean bizikidetza kudeatzeko erreferentziako organoa da. Irakasleek eta ikasleek Bizikidetza ko edozein keka edo gatazkaren aurrean zuzenean talde eragile honetara joko dute.

Talde hau **“BeGlaK”** izenarekin ezagutzen da. Elorriko Institutua Bullying Gabeko Ikastetxea dela adierazten du.

Partaideak. Hiru irakaslek osatzen dute talde hau: orientatzailea, zuzendaritzako ordezkaria eta irakasle bat. Hauetako bat hezkidetza ordezkaria izango da.

Zereginak:

- Prebentzio ekintzak tutoretzetan aurrera eramateko proposatu.
- Ikastetxean elkarbizitza gatazkak edota jazarpenen inguruko informazioa jaso, behaketa antolatu, estrategiak pentsatu, jarraipenak egin, irtenbideak proposatu, ...
- Formazioa irakasleekin antolatu

### 5.4. EGITURA HAUEN ETA IKASTETXEKO BESTELAKO KUDEAKETA-ORGANOEN ARTEKO HARREMANA.

Sistematikoki bilerak antolatzen dira zuzendaritzarekin, pedagogia-batzordearekin, OOGrekin, jangelaren arduradunarekin, eskolaz kanpoko jardueren arduradunarekin, ... Horrez gain premia sortzen denean.



## 6. JARDUTEKO -IRIZPIDE ETA -ILDO OROKORRAK

### 6.1. JARDUTEKO IRIZPIDE OROKORRAK.

Hezkuntza -komunitate osoak kontuan izango ditu jarduteko irizpide hauek:

- Bizikidetzaren positiboaren sustapena esparru guztietan eta curriculumeko arlo eta ikasgai guztietan egingo da .
- Gure ikasleen inklusioa eta hezkuntza-arrakasta oinarritzat hartzen ditugu, guztion ongizatearekin eta bizikidetzaren elkarbizitza positiboaren lorpenarekin zuzeneko lotura baitute.
- Partaidetza izango da bizikidetzaren araudiari buruzko erabakiak hartzeko lehentasunezko bidea. Arauak eta erabakiak denon eskubideen eta ongizatearen bermea sustatzen duten elementuak izango dira, eta hala ulertu eta partekatuko ditu komunitate osoak .
- Hezkuntza komunitateko pertsona heldu guztiek, garrantzizko gatazkaren bat ezagutzeko gero, esku hartu edota haren berri eman beharko diete arduradunei.
- Gatazkak konpontzeko lehentasuna emango zaie adiskidetzeko eta kalteak konpontzeko prozedurei.
- Gatazkak kudeatzeko beti aztertu beharko dira lehenik arrazoiak, eta, hala badagokio, zigorraren eragin berrezitzailea. Hartzen diren neurriek helburu berrezitzailea izan beharko dute beti. Adiskidetzaren eta kalteak konpontzea lehentasunezko prozedurak izango dira.
- Ikasleek gatazkak konpontzeko duten modua eta proposatzen dugun bizikidetzaren balioen arabera jokaera duten ala ez kontuan hartuko da Bizikidetzarako gaitasunaren ebaluazioan eta, ondorioz, oinarritzko gaitasunen garapen-maila neurtzeko.
- Jazarpen-kasuen, eta edozein bereizketa eta indarkeria-motaren aurrean eta bereziki genero arrazoiengatiko bereizketa eta emakumeen aurkako indarkeriaren aurrean, tolerantziarik ez.

### 6.2. JARDUTEKO ILDO OROKORRAK

Sistematikoki aztertuko dugu ea irakatsi eta ikasteko prozesuaren plangintzak, metodologiak, ebaluazio-prozesuek, irakasleen arteko koordinazioak eta familiekiko koordinazioak sustatu eta laguntzen dieten gure ikasleei arrakasta lortzen.

Garrantzi berezia ematen diogu gatazkei aurrea hartzeari eta Gatazkak etikoki kudeatzeari. Gatazka ez da zerbait negatibo eta ekidin beharrezkotzat hartzen. Bizikidetzak berezkoa du gatazka; beraz, irakasleriari eta eskola-komunitateko kideei baliabideak ematen dizkiegu gatazkak modu eraikitzailean konpontzeko.

Lehentasunezkoak izango dira ikastetxeko bizimoduan **partaidetza sustatzeko** jarduerak:

- Ikasleekin:**



- Gelako ordezkariekin bilerak (Delegatuaren hautaketa, bere zereginaren garrantzia indartu eta baloratu, ikasketa buruarekin bilerak antolatu gelara informazioa eramateko).
  - Jarduera osagarrien gastuei aurre egiteko ekintzak antolatu (bonboiak saldu, tortilak,...)
  - Ikasleen ordezkarien partaidetza sustatu: ordezkarien bileretan parte hartu eta informazioa zabaldu, ebaluazio bileretara geletako balorazioa eraman , OOG eta Bizikidetza -Hezkidetza behatokia parte hartu,..
  - Ikaslea ikasgelaren bizitzan inplikatu. Bizikidetzarako arau batzuk ezartzeko premiaz hausnartu. Ikasgelaren arauak idatzi. Ikasgelaren funtzionamendu egokirako ardurak eta aldizkako betebeharrak finkatu: argiak, pertsianak... Jarduera desberdinen balorazioa.
  - HAUSPOAN Lehen hezkuntzako ikastetxearekin lankidetzan aritzeko bultzatu 3. mailako ikasleak. Ikasle boluntario hauek LHko ikasleekin arratsalde baten laguntza lanak egingo dituzte gela barruan dagokion irakaslearekin batera. Horrez gain ikasleek ekintzak antolatzeko edo proposamenak egiteko aukera zabaldu.
- Ikasle -ohiak:** HAUSPOAN tailerrak eskaini.
  - Familiekin:** GURASO ELKARTEA, OOGko ordezkariak, Bizikidetza-Hezkidetza behatokia ordezkariak, HAUSPOAN, A21, hezkidetzarekin lotutako egun esanguratsuetan egiten diren ospakizunetan.
  - Irakasleak:** Batzorde Pedagogikoa, Sailak, OOGko ordezkariak, Bizikidetza-Hezkidetza behatokia ordezkariak.
  - Ez dozentek:** jantokiko begiraleak zuzendariarekin koordinazioa, OOGko ordezkariak, Bizikidetza-Hezkidetza behatokia ordezkariak.

Era berean lehenitasuna izango dute **komunikazio-kanal** argi eta eraginkorrak mantentzera bideratutako jarduerak:

- Zuzendaritzaren eta irakasleen arteko komunikazio- kanala Pedagogi Batzordea da.
- Irakasleen eta ikasleen artekoa, tutoreek eta edozein irakasleek erabiltzen direnak zuzenekoak (behar denean hitz eginez) eta teknologien bitartez egindakoak (drive, posta, programa desberdinak). Lehen erreferenteak tutorea eta orientatzailea dira.
- Irakasleen eta familien artekoa. Lehen erreferentea tutorea da eta familiarekin adostuta medio desberdinak erabiliko ditu: INIKA, telefonoa, posta elektronikoa eta zuzeneko elkarrizketak. Tutorearekin hitz egin ondoren, edozein irakasleekin komunikatzeko ere, kanal berdinak erabiliko dira.
- Zuzendaritza:
  - Ez dozenteekin zuzeneko harremana dago momentu oro.
  - Guraso Elkartearekin hileroko batzarra.
  - Lehen hezkuntzako zuzendaritza taldearekin hileroko koordinazioa.
- Ikastetxea eta familien arteko komunikazioa. Familiei ikastetxearekin komunikaziorako bideak zeintzuk diren adieraziko zaie :
  - Batzar orokorrean ikasturte hasierako tutore bileran, Ikasturteko gidan, Web orrialdean, E-inikan, ...
  - Informazioa familietara heltzen dela ziurtatzea (web orrialdez, emailez, telefonoz, zein idatziz, ....beharrezkoa ikusten denean).





- Tutoretza Planak jasotzen duen moduan, familia bakoitzarekin ikasturtean zehar 3 aldiz gutxienez bilduko gara aurretik adostutako bideak erabiliz.
- Komunikazioa errazteko bide telematikoen erabilera azaltzeko formazio saioak antolatuko dira familientzat.
- Ikastetxeen arteko koordinazioa. Ekainean bilerak antolatzen dira orientazio mintegiak, LHko 6. mailako tutore eta PTarekin gure ikastetxera etorriko diren ikasleen informazioa jasotzeko.

**Tutoretza-jarduerako planak** ere lehentasuna izango du: banakako tutoretza eta taldeko tutoretza, talde-kohesioa lortzeko estrategiak, hezkuntza emozionala eta gizarte-trebetasunetan sakontzeko dinamikak:

- Banakako Tutoretzarekin ikasle guztiei erantzun egokia emateko, irakasle gehiengoak tutoreak gara. Beharrezkoa den kasuetan bigarren tutorea ere izendatzen dugu.
- Mankomunitatetik edo Udaletik jasotzen dira tailer desberdinak (Drogomenpekotasunari Iburuzko tailerrak, "hezkuntza afektibo-sexuala", "Tratu Onak" tailerra, "Eraldatzen", "Zaindu" programa, ...)
- Kohesio estrategiak lantzen dira metodologia kooperatiboaren bidez.
- Ikasleen orientazio pertsonala eta soziala egiten da.

**Ikasleen artean elkarreragin positiboak sustatuko dituzten metodologiak** erabiliko dira, ikasteko modu desberdinei erantzun, eskola inklusiboaren printzipioa errespetatu eta ikasle guztien arrakasta lortzen lagunduko dutenak, besteak beste:

- Metodologia kooperatiboa zabaldu.
- Arlo instrumentaletan, lehen eta bigarren mailetan, bi irakasle gela barruan izendatu.
- HPB ikasleei gela barruko laguntzak eskaini.
- Arlo ezberdinetan ikas teknikak landu. Ikastetxeko hezkuntza proiektuan mailaz maila erabakitako ikas teknikak landu.
- DC taldean dauden ikasleak esparrutik kanpo geratzen diren arloak, dagokion mailako beste ikasleekin batera landu.

Irakasle, ikasle, familia eta irakasleak ez diren langileei zuzenduriko **formazio-planak** garatuko dira, gatazkari eta kudeatzeko moduari buruzko hezkuntza-ikuspuntuen inguruan (bulliying, ciberbulling, teknologien erabilera, Berdinu...)

**Hezkidetzako eta kulturarteko eskola** baten alde lan egingo da, berariazko planak garatuz ikuspuntu hau txertatuz dokumentu hauean: Ikastetxeko Hezkuntza Proiektua, AJA eta Bizikidetzako Hezkidetzako Plana.

Ikastetxeko bizikidetzako ebaluazio-saio guztietan jorratu beharreko gaia izango da. Datuak bildu, aztertu eta ondoren hobetzeko proposamenak egingo dira batzorde desberdinetan: Zuzendaritza batzordean, Bizikidetzako Hezkidetzako talde eragilean, Batzorde Pedagogikoan, Bizikidetzako Behatokian eta OOG-ean.

Ikastetxean **bizikidetzako giro ona** lortzera bideratutako ekintzak burutuko dira. Pertsonen arteko harreman positiboak sustatzeko:



- Ikasleen artean ikastetxeko partaide direla sentimendua sortzeko ekintzak: ikasgelako taldean kohesioa dinamikak landu, elkartrukeak, irtenaldiak, ikasturte bukaerako txangoa, Gabonetako jaialdia, ikasle berriei eskualdeko aisialdi eta eskolaz kanpoko jardueren berri ematea.
- Irakasleen eta ikasleen artekoa sendotzen da aurreko ekintzak elkarrekin egiten dituztelako.
- Ikastetxe eta familien arteko harremanak hobetzeko ekintzak : ikastetxeko bizitzan antolatzen diren ekintzetan eta Hauspoa proiektuan parte hartu.

**Leku eta momentu gatazkatsuak** aurreikusi eta neurri prebentiboak ezarri :

**SARRERAK:** 5' lehenago sarrerako eta geletako ateak zabaldu.

**KOMUNAK:** Tarteetan itxita daude. Irakastorduetan irakaslearen baimanarekin erabili.

**TAKILAK:** Goizeko lehen orduan eta jolastordu osteko uneetan soilik erabili.

**ALDAGELAK:** Erabiltzen den bitartean irakaslea aldegelan egongo da.

**ZAINTZAK:**

- Faltako den irakasleak lana utziko du.
- Sail bakoitzak "urgentziazko lana" prestatu ordu honetarako.
- Lan hau ordua amaitutakoan batu.
- Zaintzak zaintza gelan egingo dira.
- Ikasle bat kanporatzen bada, lanarekin joango da zaintza gelara.

**IKASGELA:**

- Ikasgelan gelditzen diren ondasunak babesteko, gela hustu bezain laster giltzaz itxiko da.
- Gela bakoitzak atean izango du erabileraren ordutegia, horrela nor den erabiltzen duen azkena jakin ahal izango dugu.

**LIBURUTEGIA:**

- Atsedendian baimenarekin erabiliko da.
- HAUSPOAN irakaslea bertan dagoela, ikasteko gunen moduan erabiliko da.

**JANTOKIA:**

- Ikastetxeko arduradun bat egongo da.
- Mahai bakoitzak ikasle arduradun bat izango du.

**JOLAS-TOKIA:**

- Atsedendian zaintzako irakasle bat egongo da liburutegian eta bi patioan.
- Atsedendian sarrera eta irteeretan zaintzako irakasleak egongo dira eskailerako hasieran eta amaieran.
- Euria denean kanpoko eraikuntza erabiliko da eta bertan zaintzako irakasle bat egongo da. Ezin da baloirik erabili.<sup>1</sup>

<sup>1</sup> Eranskin moduan [espazio ezberdinen arautegia](#) idatzita dago



## 7. IKASLEEN ARTEKO JAZARPENAREN AURREAN ESKU-HARTZE MAILAK

Gure hezkuntza praktikan pertsonen arteko harremanetan eta talde barruko botere posizioetan (ikasleen artean, irakasleen artean, familietan, familia eta irakasleen artean, irakasle eta ikasleen artean) harremantzeko beste modu daudela islatzen duen neurrian, orduan talde barruan beste honako pautak sartzeko baldintza egokiak izango ditugu. Pauta egoki horiek izango dira besteak beste, zaintza, laguntza, aurreikusi, errukitasuna, kolaborazioa, kooperazioa,... Horrela aldatzen joan gaitezke gure gizartearen barruan eta baita ikastetxean errotuta dauden beste pauta desegoki hauek: norgehiagoka, helburuen lorpenak besteen gainetik, indartsuaren legea, .....

Jazarpenaren aurkako proiektu hau egiten dugu prebentzio moduan, jarreretan eta talde barruko harremanetan lan egiteko eta horrela jazarpen egoerak sahiesteko, eman daitezkeen arriskuak kentzeko eta ematen direnak desagertarazteko. Baita inork ikusten ez dituenak, espazio birtualak ematen duten anonimatuak, ez daitezkeen gertatu.

Gainera aldarrikatu nahi dugu harremantzeko beste modu batzuk posibleak direla, jazarpena sahiestu daitezkeen zerbait dela eta ez direla derrigorrez eman behar pertsonen arteko harremanetan eta taldeen garapenean.

Ikuskera ekologikoa-sistemiko batetik abiatuko gara, hau da, inplikaturik dauden guztiekin lan eginez: erasotua, erasotzailea, ikusleak, ikastetxea eta familiak kontuan izanik. Egoera latza, gordina eta konplexuen honen aurrean ikuskera sistemikoa hezigarriena eta koherenteena da.

Bullying egoerak gertatzen direnean eman beharreko erantzuna argia, zintzoa eta zuzena izan behar da, laidoak, isekak, erasoak, mehatxuak edo manipulazioa alde batera utzita. Erantzuna berehalakoa izan behar da, soluzioa epe luzera etor badaiteke ere. Esku-hartzeak, zer gertatu den, nortzuk hartu duten parte eta horren aurrean zer egin den jakiten lagundu behar digu. Horretaz gainera, etapa bakoitzean, familiak inplikatu behar ditu eta egoerari aurre egiteko egon daitezkeen bideez eztabaidatzeko aukera eman behar die neska-mutilei.

Esku-hartzeaz ari garenean, ikuspuntu eta eragin-maila desberdinetatik eskola jazarpena (berdinen artean tratatu txarrak eta beldurrarazteak), aurreikusi, saihestu edo deusezta dezaketen jarduerak guztiak aintzat hartu behar ditugu:

- Aurreikusteko (lehen mailako esku-hartzea)
- Kontrolatzeko (bigarren mailako esku-hartzea)
- Deuseztatze (hirugarren mailako esku-hartzea)

Ezinbestekoa da zein mailatan gauden argi izatea erabiliko ditugun prozedura, tresna eta baliabideak ez nahasteko.



## ESKU HARTZE PROAKTIBOAK

**LEHEN ESKU-HARTZE MAILA . AURREIKUSTEKO .** Maila honetako helburua prebentzio-probentzia da. Bizikidetzaren positiboa sustatzeko eta partaidetza bultzatzeko egingo diren ekimenak definitzen dira. Bertan jazarpen dinamiketatik babesteko neurriak ezartzen dira. Hiru estamentuetara zuzendutako ekintzak dira (familiak, ikasleak eta ikastetxe/irakasle).

1. **Ikastetxe/irakasleriarekin** jarraian aipatutako helburuak eta helburu bakoitza betetzeko ekimenak burutuko dira:

a. Sensibilizazioa eta kontzientziazioa lortzeko:

- i. [Preconcimej](#) galdetegia ikasleek beteko dute lehen ebaluazioaren amaieran.
- ii. Formazioa . Ikasturte bakoitzean saio bat gutxienez egingo da eta Gatazken kudeaketarako protokoloa ezagutaraziko da.
- iii. Talde eragilea . Eratuta dago eta asteen behin biltzen da. Talde hau erreferentea izan behar da eta ezagutzera eman behar da.
- iv. Bullying zona askea . Ikastetxeak hartu duen konpromisua eta estamentu ezberdinekin lantzen den kontzeptua da.

b. Kanal komunikatiboa beti irekita dagoela ziurtatzeko:

- i. [-Inkestak](#) . Ikasturte hasieran ikasleei pasatuko zaie 1 DBHn
- ii. -Banakako tutoretza eratuta dago.
- iii. Postontzia. Komunikazio konfidentziala bermatzeko bi bide daude, bata eskaileretan jarritako postontzi arruntak eta web orrialdean dagoen postontzi birtuala “stop bullying”.
- iv. Behaketa [Ni eta eskola](#) . 1.mailako ikasleei pasatuko zaie 2. eta 3. ebaluazioan.

c. Gatazken kudeaketa

- i. Adostokia gela erabilgarri dago.
- ii. Bitartekaritza sistema. Bizikidetzaren-Hezkidetzaren taldeak konfliktuak bideratzeko bultzatzen duen estrategia da.
- iii. Jarrerazko hutsuneen kontrola eraman. Ikastetxeko eremu ezberdinetan sortzen diren intzidentzia esanguratsuak, erregistroan jaso. Horretarako DRIVEa erabiltzen dugu.

d. Jolastokiaren kudeaketa, zaintzan dauden irakasleak ikasleentzat erreferenteak dira. Zaintza egiten duten bitartean behaketa lanak egingo dituzte modu naturalean eta beharrez gero zuzendua.

2. **Ikasgela.** jarraian aipatutako helburuak eta helburu bakoitza betetzeko ekimenak burutuko dira TUTORETZAN:

a. Ikaslearen eskubideak eta betebeharrak:

i. Mugak/arauak . Ikasturte hasieran tutoretzan gelako arauak



amankomunean erabakiko dituzte eta noizbehinka birpasatu erabakitakoa.

**b. Talde kohesioa/partaidetza. :**

- i. Ikasketa kooperatiboko dinamikak landuko dira tutoretzetan. Horretarako [-Cascon](#) edo Maite Garaigordobil adibidez proposatzen dituzten dinamikak erabili daitezke.
- ii. Kalitate taldeak . Maila bakoitzeko delegatuekin bizikidetzaren kudeaketarako formazioa eman eta prestatu gatazka batzuk bideratzeko. Balorazioa egin ondoren, urtez urte zabaltzen joango gara maila desberdinetara.
- iii. [Taldearen aktibazioa](#). Jazarpena DBH1 mailan tutoretza saio batzuetan intentsiboki landuko da .
- iv. Egingo diren galdeketatik eta arauetatik gain tutoretzako hiru saio erabiliko dira bullingnaren definizioa lantzeko , txibato / solidario kontzeptoak bereizteko eta postontzia kanal komunikatibo moduan bermatzeko. Erabili daitezkeen materialak honako hauek edo antzekoak izan daitezke: Bully Dance , Friends , Cibereduca ,Ciberprogram,...

**c. Tutoretza/Ordu soziala:**

- i. Elkarrizketa ezagutza .
- ii. Hezkuntza emozionala .2. mailan Horretarako [AF-5](#). Autoezagutza neurtzeko testa erabili daiteke balioak lantzeko.

**3. Familiak.** jarraian aipatutako helburuak eta helburu bakoitza betetzeko ekimenak burutuko dira:

**a. Partaidetza**

- i. IHP partaidetza sustatu, OOGnean dauden familien bitartez egingo da.
- ii. Jazarpenaren lanketa Bizikidetzaren planaren baitan. Behatokian dauden familien bitartez egingo da.

**b. Familiekin bilerak egiteko orientabideak eman:** Ikasturte hasieran tutoreen bilera aurrera eramateko gidoia landu.





**BIGARREN ESKU-HARTZE MAILA . KONTROLATZEKO.** Susmoren bat dagoenean.

Egoera kontrolatzeko eta datuak jasotzeko era zehaztuko dugu. Momentu honetan arrisku faktoreak identifikatu eta erasoak ekiditzeko ekimenak burutuko dira. Hiru estamentuetara zuzendutako ekintzak dira (familiak, ikasleak eta ikastetxe/irakasle).

1. **Egoeraren berri jaso** edozein iturritik datorrela [0 eranskinean](#).
2. **Zuzendaritzan berri eman.**Jazarpen aurkako [gida](#) prozesua jarraitu. Ikasturte hasierako bileran azalduko da
3. **Talde eragileari komunikatu(BeGla)** zerbait gertatzen denean prozesua martxan jartzeko.
  - Talde eragileak estabaidatuko du kasua 2.mailako zehaztapenen ([taldeko dinamika](#), [menpekotasuna](#), [denbora](#), [biktimizazioa](#), [asmoa](#), [osagaiak](#)) arabera. Adostasuna lortzen ez denean behaketara joko da.
  - Irakasleriarekin bilerak egingo dira 5 egun baino lehenago. [I eranskinean](#) jasoko da bilera honen berri. [Babes neurriak](#) adostuko dira eta behaketa sistematikoa egingo da. Ikuskaritzara eta B09 berritzegunera bidaliko da.
  - [Behaketa sistematikoa](#) egingo dira :
    - i. Ikasgelan:

Behaketa doituak erabiliko dira eta kasuz-kasu erabakiko da zein den erabili behar dena:
    - ii. Heteroinformeak: [Nire bizitza eskolan](#), [Nire bizimodua eskolan](#), [CESC](#), [-Bull S](#). (Biktima nor den jakiteko)ertsioa ematen du.
    - iii. Autonarrazioak 1,2,3,. Zalantzen aurrean hausnarketa egiten da eta bakoitzak ( E-B) bere b
    - iv. Jazarpenaz hitz egin:[CESC BH](#)
    - v. Behaketak espazio eta momentu desberdinetan antolatu.
  - Elkarrizketak antolatu.Elkarrizketak balizko inplikatuekin pautak jarraituz :[ustezko biktima](#), [ustezko erasotzaile](#), [ikusleak](#), [irakasleak](#). [I eranskinean](#) jasoko dugu akta modura egiten diren bilera guztiak.
  - Ohiko egitura. Tutorea edo irakasleak izaten dutena.

Ez ohiko egitura. Bizikidetzeta–hezkidetzeta taldearen esku-hartzea ematen denean.
  - [Triangulazioa](#) egin eta erabakiak hartu:
    - i. Jazarpena ez dagoela erabakitzen bada prozedura itxi eta behaketarekin jarraitzen da.I eranskina erabili



- ii. Zalantzarik egonez gero [A txostena](#) zabalduko da. Bi asteko epea dago txostena betetzeko eta erabaki definitiboa hartzeko. Ikuskaritzara bidaliko da.
  - Ikasgelan egitekoa proposatu detektatzen den arazoaren arabera, bizikidetzari lotutako aspektu desberdinak lantzeko. ( talde kohesioa, autoestima, emozioak adieraztea,.....)
- 4. Familiekin elkarrizketak egiteko orientazioak** . Bilerak eta komunikazioa antolatu . Inplikaturako familiekin banakako bilerak antolatuko ditu jarraipen batzordeak tutoreekin batera baina Zuzendaritzak eramango ditu bilera hauek. Bilera hauetan nortzuk egon behar diren erabakiko da kasuz kasu.
- i. [Balizko biktimaren familiarekin](#)
  - ii. [Balizko erasotzaileen familiarekin](#)
- 5. A TXOSTENA igortzea Hezkuntzako Ikuskaritzari.** Zabaldu zenetik 15 eskola-eguneko epearen barruan. Bertan erabakia jasoko da jazarpen kasua den edo ez. Ez bada behaketarekin jarraituko da eta tutoretzan landuko da. Baldin bada hirugarren esku-hartze mailara pasatuko gara.



## ESKU HARTZE REAKTIBOA. ESKOLA JAZARPENAREN PROZEDURA

**HIRUGARREN ESKU-HARTZE MAILA. DEUSEZTATZEKO** . Arazoa eztanda egin ondoren. Berdinen artean tratatu txarrak eta beldurrarazteak deseustatzea izango da xedea. Ageriko eraso portaerak ezabatzeko saiakerak egingo dira. Hiru estamentuetara zuzendutako ekintzak dira (familiak, ikasleak eta ikastetxe/irakasle) eta bai Hezkuntza Ikuskaritzara begira .

Jasotako informazioa aztertu ondoren, eskola jazarpena badagoela pentsatzeko nahikoa ebidentzia aurkitu direla ondorioztatzen bada B TXOSTENA beteko du ikastetxeak. Eta 22 egun daude betetzeko eta Ikuskaritzara bidlitzeko A txostean bidali zenetik. Hezkuntzako Ikuskaritzak hala eskatzen duenean ere beteko du txosten hori.

- a. **INFORMAZIO OSAGARRIA BILDU.** Talde eragileak zuzendaritzarekin batera erabakiko du nork eta zer egin behar duen bakoitzak. **Ardura eta erantzukizunaren banaketa** erabakiko du. Informazioa jasoko du behar izanez gero: irakasleen behaketa antolatuko du, Behaketa une eta guneak zehaztuz, talde- ikasgelako barne-harremanei buruzko informazioa biltzeko soziogramak edo antzeko teknikak erabili ahal izango dira, ...
- b. **JARDUERA-PLANA**
  - a. **Egoeran inplikaturakoekin** ( Biktimarekin, portaera erasotzailea duenarekin, gertuko aktoreekin)
    - Zihurtasun uneak eta guneak bermatuko dira biktima den ikaslearentzat.
    - Diskrezioa eta Konfidentziasuna bermatuko da.
    - Pikas metodoa martxan jarriko da., ustezko erasotzaile/engandik hasita, ustezko erasotua eta ikusleekin banakako elkarrizketak eginez. Kasu bakoitzean nor arduratuko den erabakiko da, ez da gomendagarria tutorea izatea momentu honetan.
      - Neurriak hartuko dira: AIA kontuan izanda eta neurri hezitzaileei lehentasuna emanez, erabakiak hartu jazarpena eragin duenarentzat.
      - Parte diren guztiek erabakitakoaren berri jasoko dute: familia, ikaslea, irakasle.
      - Jarraipena egin. Hartu diren neurrien eraginkortasuna baloratzeko, talde eragileak zuzendaritzarekin batera, prozesua sistematikoki ebaluatuko du. Kasuaren bilakaeraren arabera, hasieran proposatutako Jarduera Plana aldatu ahalko da. Aldaketarik eginez gero, Hezkuntzako Ikuskaritzari jakinaraziko zaio.
  - b. **Harrera/ lagun taldeen aktibazioa. Ikasgelan**
    - Gelako bizikidetzaren positiboa berreraiki aspektu hauek landuz: adimen emozionala, empatia, asertibitatea, solidaritatea, autokontzeptua, autoestimua



- Ikasleen eskubide eta betebeharrak aztertu
- Mugak/ arauak : kontzeptuak landu edo bergogoratu.
- Jazarpenaren kontrako arauak ezagutu edo bergogoratu.

c. **Familiekin:**

- Kolaborazioan oinarritutako komunikazioa ezarri:
  - a. -Egitura gabekoa: mezu positiboak tfnoz
  - b. -Egituratua: elkarrizketak (datuekin)

Zuzendaritzak idatziz jakinaraziko dio erreferentziazko ikuskariari egoera modu egokian birbideratu dela uste duenean.

ONARTUA 18-22



## 8. BIZIKIDETZA-HEZKIDETZA PLANAREN URTEKO ZEHAZTAPENA

Ikastetxeko Urteko Planean, urtero sartuko dugu ikastetxeko elkarbizitza hobetzeko helburu bakoitzeko ekintza bat gutxienez. Bizikidetza –Hezkidetza Planean jasotako helburuen zehaztapena izango da.

Plangintza egin eta jarduerak garatuko dira helburu horiek lortzeko.

Jarduera horiek garatu eta jarraitzeko arduradunak finkatuko dira , eta baita denborak, baliabideak eta jarraipen- eta lorpen-adierazleen zehaztapena ere.

Helburu horien ebaluazioa ikasturte amaierako memorian islatuko da , eta kontuan hartuko da hurrengo ikasturteko bizikidetza-helburuak eta ekintzak ezartzean.

Bizikidetza–Hezkidetza Behatokiak, hau da, eskola-komunitateko sektoreen ordezkaritza biltzen duen estamentuak, urtero bizikidetza-hezkidetzarako ekintzak proposatuko ditu, eta garatu beharreko jardueren diseinuan eta jarraipenean parte hartuko du.

Helburuek eta aukeratutako jarduerak, berekin dituzte zenbait prestakuntza-ekintza, eta Ikastetxeko urteko Planaren prestakuntza-atalean jasoko dira.

Prozedurak ezarriko dira komunitateko kide guztiek ikasturte bakoitzeko helburuak ezagutu ditzaten, eta haiek lortzen lagun dezaten.



## 9. ZABALKUNDEA

### 9.1. BIZIKIDETZA-HEZKIDETZA PLANAREN ZABALKUNDEA

Bizikidetza –Hezkidetza Planeko helburuak modu arrakastatsuan lortzeko komunitateko kide guztiek ezagutu behar dituzte. Horregatik:

- a) Ikastetxearen webgunean Bizikidetza–Hezkidetzaren Plana aurki daiteke , bizikidetzari buruzko oinarriko araudia, jarduera-protokoloak, prebentziozko jarduerak etab. adierazten dira . Bertan esteka bat dago, non Bizikidetza–Hezkidetza Plana eta Behatokiaren funtzionamendua hobetzeko iritzi, iradokizun eta proposamenak eman daitezkeen eta horretarako galdetegi bat eransten zaio, bizikidetza hobetzeko eta kidetasun-sentipena areagotzeko proposamenak eskatzeko.
- b) Ikastetxeak Bizikidetza–Hezkidetza Planaren alderdirik nagusienak jasotzen dituen dokumentu-laburpen erraza ikasturte hasieran familiei banatzen zaien gidan jasotzen da. Dokumentu hori eskola-komunitateko kide guztien eskura dago, eta sistematikoki ematen zaie, harrera-unean, hezkuntza-komunitatean sartzen diren pertsona guztiei (ikasleak, familiak, irakasleak, administrazio eta zerbitzuetako langileak, etab.).
- c) Ikasturte-hasierako bilerak. Ikasturtearen hasieran familiekin, ikasleekin, klaustroarekin, guraso elkartearekin eta abarrekin izaten diren bileretan, hainbat gairen artean, Ikastetxeko Bizikidetza–Hezkidetza Planaren funtsezko zenbait alderdi eta haien urteko zehaztapenak aztertzen dira
- d) Tutoretza Planaren jarduera-programaren barnean, tutoretza-saio batean, Ikastetxeko Bizikidetza –Hezkidetzarako Planaren helburuak jorratuko dira.
- e) Gabonetako jaialdian jardueren artean Bizikidetza–Hezkidetza Planeko helbururen bat garatzeko gutxienez jarduera bat egingo da.

### 9.2. URTEKO HELBURUEN ETA JARDUEREN ZABALKUNDEA

Ikasturte bakoitzeko helburuak ikastetxeko sarrerako eskaileretan jartzen dira ikusgai, bertara sartzen den edonork ikus ditzan. Horrez gain” Bulling zona askea” web orrian , pasabideetako telebistetan, ...

Urtero, ikasturte erdian ematen den galdera-sortan (asebetetasun inkesta), ikastetxeko bizikidetzari eta bizikidetza hori hobetzeko egindako jardueri buruzko galderak egiten dira.

Ebaluazio bakoitzean OOGneko bileran, Behatokiko bileran, Pedagogi Batzordean ekimeneen balorazioa egiten da.

Ikastetxeko Urteko Planaren barruan jasota daude .





### 9.3. ESKOLA-JAZARPENAREN PROTOKOLOAREN ZABALKUNDEA

Bizikidetza–Hezkidetza Planean hezkuntza-komunitateari eskola-jazarpeneren protokoloaren berri emateko prozedura eta horrelako kasuetarako jarduera-jarraibideak azalduko dira. Gure ikastetxean, ikasturte hasierako bileretan, OOGren lehen bileran, eta klaustroaren lehen bileretako batean aurkeztuko dira protokoloa eta, eskola-jazarpeneren zantzua duen portaeraren baten berri izanez gero, jarraitu beharreko prozedurak.

ONARTUA 18-22



## 10. BIZIKIDETZA-HEZKIDETZA PLANAREN JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA

### 10.1. BIZIKIDETZA-HEZKIDETZA PLANAREN EBALUAZIOA

Bizikidetza-Hezkidetzaren Behatokiak gutxienez lau urtetik behin Bizikidetza-Hezkidetzaren Planaren ebaluazioa egingo du. Nahiz eta epe hau bukatu aurretik premiarik badaude moldatzen joango gara. Ikastetxeko zuzendaritzak eta Bizikidetza-Hezkidetzaren Behatokiak alderdi hauek aztertuko ditu:

- a) Hezkuntza-komunitateak zenbateraino ezagutzen duen Bizikidetza-Hezkidetzaren Plana. Kontuan izan behar da kideak denborarekin aldatu egiten direla. Hori dela eta, bi urtetik behin zuzendaritzak galdera-sorta bat pasatuko die ikasleei tutoretza-saioen bidez eta familiei web orrialdean dagoen galdetegiaren bidez..
- b) Zabalkunderako eta sentsibilizaziorako prozeduren eraginkortasuna. Bi urtez behin betetzen den galdera-sortaren emaitzen arabera, Bizikidetza-Hezkidetzaren Behatokiak erabakiko du erabiltzen ari diren zabalkunde- eta sentsibilizazio- prozedurak bere horretan mantentzea, edo beste batzuk proposatuko ditu.
- c) Bizikidetza-Hezkidetzaren Planaren ezarpen-maila eta arrazoiaren azterketa. Hainbat ikasturtetik behin Behatokiak aztertuko du Bizikidetza-Hezkidetzaren Planeko helburuak zer neurritan joan diren zehazten urteko planean, urteko izaera duten helburuen bidez. Bizikidetza-Hezkidetzaren Planaren ezarpen-maila balioztatuko du, ondorioak lortuz, arrazoiak aztertuz eta egoki iruditzen zaizkion aldaketa eta eguneratzeak proposatuz. Azterketa eta balioztatze hori urteko izaera izango duen txosten batean jasoko da.
- d) Hezkuntza-komunitatearen iritzia jasotzeko urtero galdera-sorta pasatzen da, guztien ongizatea eta ikastetxeko parte izate-sentimendua indartuko duen elkarbizitza-giroa lortzeko gauzatzen ari diren jardueren inguruan, hezkuntza-komunitateko sektoreen asebetetze-maila jasotzeko.
- e) Ikastetxeko bizikidetzaren bilakaera. Hiru hilabeteko ikastetxeko zuzendaritzak ikastetxeko elkarbizitza eten duten egoeren berri emango dio Bizikidetza-Hezkidetzaren Behatokiari, eta baita hartutako neurrien berri ere.

Behatokiak bildutako datuen ikerketa egingo du urtero. Datuak aztertuko dira, honako hauek balioztatuz: elkarbizitza eten duten egoera-kopuruaren bilakaera eta egoera mota; hartutako neurri-mota, eta eginiko esku-hartzeak.

Ikasturteen arteko azterketa konparatiboak egingo dira eta, joerak antzemateko eta Bizikidetza-Hezkidetzaren Plana edo hura garatzen ari den era berrikusteko, dagozkion proposamenak aurkeztuko dira.

f) Bizikidetza-Hezkidetzaren Planaren helburuen jarraipena eta ebaluazioa. Bizikidetzaren helburuen bilakaera erregistratu horrela lorpen-maila jasota geratuko da, hau da, denboran zehar nola zehaztu eta landu diren jasota geratuko da. Garrantzizkotzat jotzen diren ekintzak ere erregistratuko dira.



g) Bizikidetza-Hezkidetza Plana eguneratu egingo da testuinguruaren baldintzak aldatzen badira, eta, erabakitzen bada, datu objektiboetan oinarrituz, ez dela bere eginkizunak behar den neurrian betetzen ari.

## 10.2. BIZIKIDETZA-HEZKIDETZA URTEKO HELBURUEN EBALUAZIOA

Ikastetxeko Bizikidetza-Hezkidetza talde eragilea arduratuko da ikasturterako planifikatutako helburuak eta jarduerak kudeatzeaz, eta Bizikidetza-Hezkidetzaren Behatokiari eta zuzendaritzari emango dio kudeaketa horren berri. Ebaluazio hori Urteko Memorian jasota geratuko da. ([urteko bizikidetza-hezkidetza plana](#))

Ikasturteko [memorian](#) helburuen lorpen-maila aztertuko da; ondorioak aterako dira, eta hurrengo ikasturteko helburuak ezartzeko oinarri izango diren hobekuntza-proposamen berriak sortuko dira, hala nola, ikasturteko bizikidetza egoerari buruzko datuak; antolaketa, curriculum eta funtzionamenduaren inguruko proposamenak; Ikastetxeko Bizikidetza-Hezkidetza Planaren alderdiren bat aldatzeko proposamena edo Bizikidetza-Hezkidetza Behatokiari buruzkoa,...

ONARTUUA 10/20

ONARTUA 18-22

ONARTUA 18-22